

Felix Zubia Olaskoaga

MEDIKUA, ZAINKETA INTENTSIBOETAN ESPEZIALISTA

Sexu bidezko gaixotasunak berriz hemen

Asko hitz egiten da uda garaiko gaixotasunez, salmonelosiarekin edo eguzkiak eragindako erredurez, esaterako. Baina topikoak hautsiz, eta Euskal Herrian ere ligatzen dela pentsatuz, eta udaran gehixeago, beste gaixotasun talde bati buruz jardun nahiko nuke, sexu bidez zabaltzen diren gaixotasunei buruz.

Gizakia bezain zaharrak badira ere, badi-rudi azkenaldian ahaztu xamarra daudela. Bi arrazoi nagusi aipatu nahiko nituzke horretarako. Alde batetik, HIESaren (Hartutako Immuno Eskasiaren Sindromea) aurkako medikamentuen garapenak nolabait ere berarenganako beldurra alden du edo murriztu du. Eta bestetik, antisorgailuek, biharamuneko pilula azkena, haurdunaldiaren arazoa arindu digutela dirudi. Bi arrazoi hauek medio, badirudi preserbatiboen erabilera murrizten ari dela noiz behinkako sexu harremanetan, edo behintzat, ez dela behar hainbeste erabiltzen.

Astakeria galanta noski. Alde batetik, HIES bizi-bizirik dagoen zerbait delako, eta gaur egunean, gure artean izaten diren kasu berrien gehiengo handi bat sexu harremanen bidez hartuta delako. Medikamentuetan aurrera bagoaz ere, ez da gaixotasuna sendatzerik lortu, eta arriskua hemen dago. Baina bestalde,



DANI BLANCO

badira bestelako infekzioak ere, sexu-harremanen bitartez zabal litezkeenak.

Ezagunena beharbada sifilia izango da. Urte askoan ia ezkutatu egon arren, bere intzidentzia handitzen ari da gure artean, eta nahiz eta erraz senda litekeen, askotan ez da diagnostikatzen sintoma nabarmenik ematen ez duelako, emakumeetan bereziki.

Urethritis edo tanto militarri buruz ere antzerako zerbait esan genezake. Ia baztertua egotetik, geroz eta kasu gehiago ikusten ari gara, jende gaztearengan bereziki. Eta nabarmen gora egin duena genitaletako herpesa da, askotan gainera kroniko bihurtzen dena, eta sendatzen oso zaila dena. Herrialde anglosaxoietan egin du gora batez ere, baina baita gure artean ere, eta gaur egun buruko min askoren eragile da.

Hauei aurre egiteko neurriak ezagunak dira oso, betikoak alegia. Alde batetik, norberak erabakitzen du norekin oheratu ala ez, bere gorputzarekin zer egin. Baina gogoan izan beti gaixotasun hauek ez dutela sintomarik ematen askotan, eta itxura hain osasuntsuko neska edo mutil horrek, barnean edozein gaixotasun eraman lezakeela.

Eta beste aldetik, eta hau jakinik, barrena neurrien erabilera, preserbatiboa bereziki. Badakizue beraz. Uda garaian bagaude ere, jantzi txanoa. ▢

« Gogoan izan beti, gaixotasun hauek ez dutela sintomarik ematen askotan (...).

Badakizue beraz. Uda garaian bagaude ere, jantzi txanoa



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hau maitia zurekin, esaten diote elkarri Kristianek eta Alfontso beren *Sagarren*

denboran, Martinezek, Larreategik eta Castrok gauzatutako kontakizunean, gu guztiak sagasti. Manex Pagolak idatzitako kantua Sao Tomeko erraietaraino eramanez, tripetatik sortu kultura organiko bilakaturik, hango lagunekin emanik bildu nahi izan dute beren historia pertsonala, gu era batera edo bestera partaide sentiarazi gaituen hori. Zarautzeko malekoian euskarak abertzaletu zuen Domintxineko Kristiane nerabe bihurria, bere ironia finez nobioa egiteko etxeko hizkuntzak balio ziola ikasi zuenean. Alfontso gazte futbolariari,

Azken dantza

gerran hil zioten aitaitaren isiltasunak ireki zion ezkutuko munduaren zelaia.

Aitita ezezagun haren ilunpea argitzera ekin zion. ETArekin aurkitu zen. Eta lotu. Zirkunstantziek eraman zuten Baionara eta Kristianengan bere Mari topatu. Zirkunstantzi pean daruma biziaren erdia bere Mari lagun, Saratik zazpi mila kilometrora baina etxeko. Bitartean, gurasoak galdu zaizkio despeditu ezinik, sufriarazi dizkioten torturen artean ezpatena, odola isuri bitartean sentitzen ez dena. Kristiane eta Alfontso biluztu zaizkigu *strip-teaserik* egin gabe, erakusten digutena kontrolpean borondatezko transmisioa xede. Borrokak adorea galdetzen zuen, eta adoretu bizi dira, ditugu. ▢